

Pintura Lehiaketa abian

Txinparta elkarteak antolatuta, III. edizioa izango da ▶ 4



ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ Osteguna ▶ 2007-05-10 ▶ V. urtea ▶ 1.156. zenbakia ▶ www.tolosaldekohitza.info

Lizardi Kultur Elkarteak asteburu kulturala antolatu du estrainekoz

TOLOSA ▶ Bihartik igandera, Alurr eta Udaberriren saioak, kalejirak eta bazkari herrikoia izango dira

HELBURUA ▶ «Hemendik aurrera ere euskal festa bat egitea» dutela xede azaldu dute Lizardikoek ▶ 3



Udaberrri dantza taldea. HITZA



Juanes Ceballosek eskuak egonean berotzeko makina asmatu du

LEITZA ▶ Pilotan jokatzeko eskua berotzen duen eta masajea ematen duen makina da leitzarrak asmatu duena. Oraingoaz, gainera, pilotarien artean kritika onak jaso ditu. Pilota partida bat ikusten ari zela otu zitzaion ideia asmatzaileari. «Pilotariak beroketa lanetan hasi ziren, baina partida ez zen hasten. Orduan nire buruari esan nion: Zergatik ez dira etxetik eskuak berotuta etorriko?». Ordubetea, 7.000 kolpe eman ditzake makinak. N. GARZIA ▶ 7

TOLOSA ▶

Rodrigo Leoren kontzertua, bihar

Ludovico Einadirekin ariko da, 21:00etan, Leidor aretoan ▶ 2

ALEGIA ▶

Garagardo Azoka bihar eta etzi izango da

Intxurre kirol elkarteak laguntzeko baliatuko dute ▶ 5

TOLOSA ▶

2.782 etxebizitza egitea aurreikusten dute 2015. urterako

Horietatik, %60a babes ofizialekoak ▶ 2

GIZARTEA ▶

2.782 etxebizitza berri egingo dituzte, %60a babesekoak

Hiri Urbanizaziorako Plan Orokorra onartu dute alderdi guztiek; 8 urteko epean etorkizuna diseinatzea du helburu

ERREDAKZIOA

Tolosako Udalak herenegun egindako ohiko batzarrean Udala osatzen duten bost alderdi politikoen botoekin, aho batez onartu zuen Tolosako Hiri Urbanizaziorako Plan Orokorra. 2015 urtera arte, 8 urteko epe barruan garatuko den proiektu honen helburua «Tolosaren etorkizuna diseinatzea» izango da. Hala, «Tolosako herritarrek azalduko behar izateko, Tolosako Udalak erakusketa publikoa egingo du

Bilkuran onartua izan ondoren, tolosarrek Hiriko Plan Orokorri haien ekarpenak egin ahal izateko, Tolosako Udalak erakusketa publikoa egingo du

Udalean bertan, lau hilabete zehar. Horrez gain, Udalak informazio hitzaldiak ere antolatuko ditu Tolosako etorkizunerako arau subsidiarioek biltzen dituzten alde eta alorre buruzko argibideak emateko.

Hiri Ordenazio Plan berriarekin, Udalak honako jarduerak alorak jorratuko ditu: etxebizitza, industria guneen zabaltzea eta birsortzea, hiri barneko gunen zabaletako sistemak gehitzea, herriko ekipamenduak, komunikazioa, garraioa eta aparkalekuak.

Etxebizitzak. Gairik «garrantzitsuenetako bat etxebizitzarena da», beraz, Plan berriak 2.782 etxebizitza berri egitea aurreikusten du eta hauetatik %60a babestuak izango dira,

Lurraren Lege Orokorrek ezarritakoa baino %20 gehiago. Era berean, garatzen ari diren etxebizitzetako proiektuak finakatu eta abian jarri eta dagoneko herrian dauden etxebizitzak birgaitu eta gaitzea aurreikusten du ere.

Industria. Industria guneari dagokionez, Tolosako Udalak egindako Planak Donostiako Etorbidearen birgaitzea (72.600 m²), Usabal industria gunea (24.800 m²) eta Apatta Erreka zabaltzea (85.490 m²) aurreikusten du.

Hirigune libreak. Hirigune libreak sortzeari dagokionean, plan berriarekin, 160.000 m²ko azalera gaindituko lirateke.

Ekipamenduak. Udal ekipamenduak dira arau subsidiario berriek biltzen duten beste puntu bat. Hortaz, Alondegiko Zentro Gerontologikoa, Corazonisten Museoa, Berazubiko haurtzaindegi berria, Txotxongiloen Nazioarteko Zentroa edo Arkauteko kultur etxea bezalako proiektu berriak gauzatu dira, besteak beste. Horrez gain, Tolosako auzo desberdinetako udal ekipamenduak hobetuko dira.

Jasangarritasuna. Proiektuak Tolosako jasangarritasuna hobetzen lagunduko du baita ere, orain gune libreak diren 160.000 m² hiriko gune bihurtuko dituelako.

Sarbideak. Era berean, Bidebieta Izaskun bezalako auzotarako sarbideen baldintzen hobekuntza eta ordenazioa, eta Tolosako bide eta oinezkoentzako pasabideak egitea aurreikusten du ere.

Aparkalekuak. Herrian zehar ibiltzea erraztuko duten aparkalekuei dagokionean, Tolosako sarreretan zein erdigunean egingo dira, eta egoiliarrentzako parking berriak sortuko dira Alde Zaharraren ezkerrean, Amaroze eta proiektuan dauden etxalde berrietan ere.

HEZKUNTZA ▶

Gurasoentzat hitzaldia, bihar Hirukiden

Hirukideko Guraso Elkarte-ko Hizkuntz Normalkuntzako Batzordeak aitek eta amek seme-alaben hezkuntzan hobeto laguntzeko bi hitzaldi antolatu ditu. Kike Amonarri- zek emango ditu. Lehengo gaur izango da, 18:30ean, Hirukide-Jesuitenetako aretoan. Euskara ez dakiten gurasoei zuzendua dago eta izenburua *Mi hij@ estudio en euskara y yo no lo se: ¿Como le puedo ayudar?* izango da.

KIROLAK ▶

Kirol sailak antolatuta hitzaldia, bihar

Tolosako Udaleko Kirol Departamenduak, *Ez gara primerakoak izango kirola egiterakoan* izenburua duen hitzaldia antolatu du Naro 2007, berdintasunerako gunea programako sentsibilizazioa eta pentsamolde aldaketa arloaren baitan. Saioa gaur izango da Udaleko batzar aretoan, 19:00etan hasita. Tolosaldeko gazteekin egindako Ikerketaren aurkezpena egingo dute hasieran, eta ondoren, arraun, pilota eta areto futboleko esperientziak Tolosan izango da mahai inguruan aztertuko duten gaia.

GIZARTEA ▶

TLS aldizkariaren bosgarren zenbakia kalean

Tolosako Udaleko TLS aldizkariaren 5. zenbakia herritarren etxeetan da jada. Mugikortasun inkestaren emaitzen berri ematen da bertan; Tolosako ikastetxeetako ikasle zenbaitek ia 800 herri- tarrei egindako kale-inkesta da, tolosarrok mugikortasunari buruz daukagun iritzia- ren adierazle esanguratsua. Aparkalekuen gai eztabaidagarria ere aztertzen da aldizkarian, eta baita Tolosa 2015 egitasmoari begira ezarri diren lanildoak ere. Azaleko gaia Ondare Historikoaren zainketa gaitik Tolosak jaso duen saria da. Usabal kiroldegiaz, Udate arreta zerbitzuaz, gazteriarri begira egin diren ekintze eta Txotxongiloen Nazioarteko Zentroaz ere ematen du informazioa.

MUSIKA ▶

Rodrigo Leao eta Ludovico Einadiren kontzertua, bihar

Emanaldia 21:00etan izango da Leidorren; Mundua Tolosan zikloaren baitakoa da



Rodrigo Leao eta Ludovico Einadi. HITZA

ERREDAKZIOA

Rodrigo Leao eta Ludovico Einadi musikariek elkarrekin kontzertua eskainiko dute bihar 21:00etan, Leidor aretoan. Emanaldi hau Tolosako Udalaren eta Syntoramaren (Donostian finkatua, 15 urte daramatza munduko musika eta musika berrietako artista handienekin lanean) artean gauzatzen ari diren Mundua Tolosan izeneko zikloaren baitakoa da.

Leao eta Einadirekin batera, ondorengo musikariek joko dute: Ana Vieira (ahotsa), Mar-

co Decimo (biolontxelo), Viviana Toupikova (biolina) eta Celina Piedade (akordeoia).

2007. urtean nazioarte mailan eskaintzen ari den ikuski- zuzen berrian, Rodrigo Leao musikari handiz lagunduta agertzen da; harekin batera dira Ana Vieira (ahotsa), Maxim Doujak (biolontxelo), Viviana Toupikova (biolina), Celina Piedade (akordeoia). Eta egitasmo berrian beste lankide garrantzitsu bat ere badu, musika garaikideko beste izen handi bat: Ludovico Einadi, italiar sortzaile eta pianojole ospetsua, mota guztietako generoen esplora-

 TOLOSAKO INMAKULADA IKASTETXEA
ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
<ul style="list-style-type: none"> • ERIZAINZTA LAGUNTZAILEA • FARMAZIA
GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
<ul style="list-style-type: none"> • DIAGNOSI IRUDIA • OSASUN DOKUMENTAZIOA • GIZARTE INTEGRAZIOA • HAUR HEZKUNTZA
IZEN EMATEA: MAIATZA
ATE IREKIAK: MAIATZAK 17
Kondeko Aldapa, 5-B 20400 TOLOSA Tel.: 943-673629 www.inmakuladatolosa.com

KULTURA ▶

ESTI EZEIZA

Lizardi Kultur Elkartek aste-buru kulturala antolatu du estreinakoz datozen egunetarako. Tolosan euskal giroa sortzeko eta zabaltzeko helburuarekin dantza, kantuak eta parranda uztartzen dituen egitaraua osatu dute antolatzaileek. Bestalde, xede honekin lotuta, parte-hartzaile guztiei euskal jantziekin agertzeko deia luzatzen diete kultur elkarteek.

Bihar iluntzean Lizardi elkartearen bertan elkartuko dira txistulariekin. Hemendik abiatuta Alde Zaharreko tabernetatik zehar ibiliko dira txikiteo herrikoa eginaz. Honetarako, bertaraten direnei banatzeko kantu liburuxkak egin dituzte. Hala, denek batera, ezagunak diren euskal tradizioko abestiak kantatuko dituzte. Poteoa amaitu eta gero, Lizardi elkartera hurbilduko dira afaltzera. Hau ere herritar guztientzat irekia izango da.

Larunbatean Tolosaldeko ia 400 dantzari txiki ibiliko dira kalean beraien dantza saioak eskaintzen. Egun berean, gauean, Udaberri taldearen dantza tradizionalaz nahiz Alurren koreografia berritzaileez gozatu ahal izango da Leidor antzokian. Asteburuari amaiera emateko, aspaldiko erromeriak gogoratu, herri bazkaria izango da Zerkausion. Hemen norberak janaria eraman be-

«Kantua, dantza eta parranda» asteburuan

Lehendabiziko aldiz, «euskal giroa sortzeko helburuarekin», asteburu kulturala antolatu du Lizardi Kultur Elkartek



Tolosaldeko ia 400 dantzari txiki ariko dira dantzan larunbatean. n.u.

harko du, eta Lizardikoe edaria jarriko dute. Horretarako, 300 litroko sagardo kupela prestatu dute. Bazkaria alaitzeko Kupela dantza taldea eta bertsolariak izango dira Zerkausion. Bestalde, egun berean Herri Urrats ospatzen denez, hara joan ezin dutenek laguntza eman ahal izan dezaten, kaxatxo bat ipiniko dute diru laguntza hauek jasotzeko.

Egitasmo hau antolatzen lagundu dute baita ere, Tolosako Udalak, Ezpeleta elkarteak eta Kutxak.

EGITARAUA ▶

MAIATZAK 11, 'OSTIRALA KANTUAN'
20:00. Lizardi elkartetik abiatuta, Alde Zaharrean zehar kalejira txistulariekin.

MAIATZAK 12, 'LARUNBATA DANTZAN'
10:30. Dantzari txikiak,

Trianguloan elkartu ondoren kaleetan zehar dantzan ibiliko dira.

18:00. Dantza talde ezberdinetako gazteboen saioa Berdura Plazan.

22:30. Alurr eta Udaberri dantza taldeen emanaldia Leidor aretoan.

MAIATZAK 13, 'IGANDEA MARTXAN'
12:30. Kalejira egingo dute, Bonberenea txaranga, trikitilari eta abarrek.
14:30. Zerkausion bazkari herrikoa. Txaranga, bertsolari eta musika talde ezberdinek alaituta.

GIZARTEA ▶

Felipe Gorriti musikagilea omenduko dute etzi

la hogeita hamar urtez Santa Maria elizako organo-jolea izan zen nafarra

ERREDAKZIOA

Felipe Gorriti omenduko dute etzi Santa Maria kaperan. Meza 19:30ean izango da, eta bertan, nafarrene hainbat lan interpretatuko dituzte.

Gorriti Uharte Arakilen (Nafarroa) jaio zen 1839an. Musikagile ezaguna izateaz gain, erreferentzi da bere garaiako musika erlijiosoaren munduan. Baita organo barruko eta erromantikoaren arteko musika bilakaeran. Organoarekin jotzeko egindako piezengatik, Parisen zazpi sari ezberdin irabaztera iritsi zen. Zortzi urtez Tafallako (Nafarroa) Santa Maria parrokiako organo-jole izan zen, 1867tik bere heriotzerarte (1896) beriz, Tolosako Santa Maria elizako mezak alaitzen aritu zen. Hori dela eta, Gorritiri omenaldia egiteko asmoz, Tolosa eta Tafallako (Nafarroa) Santa Maria abesbatzetako 100 kideetik gora bilduko dira larunbateko elizkizunean. Bertan, nafarrak konposatutako hainbat kantu interpretatuko dituzte.

Mezari hasiera emateko Agur Jesusen Ama zortziko ezaguna joko dute. Izan ere, maiatza Ama Birjinari zuzentzen zaion hilabetea da. Ondoren meza Do tonuan abestuko dute, hau Santa Maria elizako Stolz Freresen organoaren inauguraziorako konposatua izan zen. Hau da, 1885eko apirilaren 1erako. Jauna hartzerako garaian berri. *Magnificat* kantatuko dute. Eta azkenik, elizkizunari bukaera emateko *Te Deum*-a entzun ahalgo da.

JUANJO RUIZ ▶ LIZARDI KULTUR ELKARTEKO BATZORDE KIDEA

«Lortu nahi dena da, hemendik aurrera ere euskal festa bat egitea»

Lizardi Kultur Elkarteko kide den Juanjo Ruizek lehendabiziko aldiz ospatuko den jaialdiaren nondik norakoak azaldu ditu.

Zein da kultur jardunaldi hauen xedea?

Lehendabiziko aldiz egingo dugu festa hau, eta lortu nahi dena da hemendik aurrera ere, euskal festa antzeko bat egitea da.

Proiektu baten hasiera da.

Asteburu honetako lehengo saiakera da, beraz honen arabera, datorren urteetan errepikatu edo ez erabakiko dugu.

Nondik sortu zen festa hau egiteko asmoa?

Orain arte, Lizardi elkarteak gazta lehiaketa antolatzen zuen urtero. Hau Beotibarren

egiten zen, baina hau behe-rantz joan da. Hori dela eta, batzordeko kide berriei proposatu ziguten zerbait desberdina antolatzeko. Hala, pentsatu genuen euskal jai antzeko hau antolatzeko.

Beraz, Zarautz eta Ordizian ospatzen den euskal jaialdian alderatu ahalgo genuke asteburu honetakoa?

Zarautzen ospatzen den Euskal Festa izugarritzakoa da, eta horrekin alderatzea gehiegi arriskatzea litzateke. Horregatik izen hori ez jartzeagatik hiru izendapen eman dizkio: *Ostirala kantuan*, *Larunbata dantzan* eta *Igandea saltsan*.

Nori zuzenduta daude asteburuko ekitaldiak?

Saio guztiak irekiak izango



I. ETXEBESTE

dira, hau da, herritar orori zabaldua daude, eta edonork hartu dezake parte. Gainera, saio guztiak doakoak izango dira, baita igandeko bazkaria ere.

Zein ekitaldi nabarmenduko zenuke?

Lehendabiziko aldiz egiten da jaialdi hau, eta dena da nabarmentzekoa. Esaterako, poteo kantuarena beste hainbat hiritan ere egiten da, eta nahiko arrakasta izan ohi dute. Baina Tolosan uste dut orain arte inoiz ez dela egin, beraz, ez dakit nolako harrera izango duen. ◀

▶ **TOLOSALDEKO HITZA.INFO**

Inkesta. Hilaren 27an egingo diren Udala eta Batzar Orokorretarako hauteskundeetan nori bozkatu behar diozun esan dezakezu **TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAKO** webguneko inkestan.

iragarki laburrak ▶

LANA
Sukaldaria. Villabonan sukaldaria behar da. Deitu 943 69 19 33ra.
Langilea. Pertsona bat behar dugu ekitaldi muntaietarako. Dekoratuak, eszenatokia, aulkiki jarri... Interesatuak 943 69 18 41 telefonora deitu lehenbailehen.
Zerbitzaria. Tolosaldean taberna

baterako zerbitzari bat behar da lau orduz lan egiteko. 635 74 52 91 edo 943 69 43 13 zenbakira.
Sukaldaria. Eskoletako jangeletarako sukaldariak behar dira. Deitu 943 44 48 66ra.
Gidariak. Erakunde publikoetarako gidariak behar dira. Telefono zenbakia: 943 44 48 66.

TOLOSA ▶ KULTURA



Lagun batzuk I. Pintura Lehiaketako erakusketa bisitatzen. I. GARCIA

Abian pintura lehiaketa, Txinpartan

Felix Yarzaren oroimenez antolatzen duenaren hirugarren edizioa da

ERREDAKZIOA

Txinparta elkarteak Felix Yarzaren oroimenez III. Pintura Lehiaketa antolatzen du. Tolosaldean jaino diren edo bertan bizi diren artista guztiek parte hartu ahal izango dute. Parte-hartzaile bakoitzak gehienez bi obra aurkeztu ahal ditu eta hauek originalak izan behar dute. Gaia zein teknika librea izango da eta gehienezko 73x60 zentimetroko formatuan eginak.

Hiru sari banatuko dituzte. Lehenengoak 240 euro jasoko ditu, bigarrenak 180 euro eta hirugarrenak 120 euro. Epaimahaiak aukeraturiko obrak elkartearen lokalean jarriko

dituzte ikusgai San Joan jailetako egunetan, ekainaren 23 eta 25 bitartean. Hain zuzen, ekainaren 23an, hau da, erakusketaren inaugurazioan, emango dute aditza epaimahaiaren ebazpena.

Erakusketarako katalogoa prestatzeko, lehiakideek formulario bat bete beharko dute, beranduenez hilaren 31rako. Bertan izena eta bi abizen, helbidea, telefonoa, obren izenburua eta erabilitako teknika jarri beharko dituzte. Koadroak salgai jarri nahi dituztenek prezioa ere adierazi behar dute. Koadroak ekainaren 18, 19 eta 20a bitartean eraman behar dituzte Txinparta elkartera, 19:00etatik 21:00etara.

ANOETA ▶

Bai Euskal Herriari-ekitaldia bihar

Bai Euskal Herriari ekimenak ekitaldia egingo du bihar Anoetako plazan, 19:30etik aurrera. Herritarrei gonbidatzen die ekimenak bertan parte hartzeko.

ANOETA ▶

Pentsamendu positiboari buruz hitzaldia

Alkartasuna Biltokian *Pentsamendu positiboari buruzko hitzaldia* antolatu dute gaurko, 18:30ean. Silvia Camio izango da hizlaria.

ANOETA ▶

KZgunean tutorea izango da arratsaldean

Gaur goizean KZgunea itxita egongo da eta arratsaldean tutorea joango da. 16:00etatik 18:00etara posible izango da interneten nabigatzea eta 18:00etatik 20:00etara herritarren txartelaren inguruko ikastaroak emango dituzte.

ZIZURKIL ▶

San Isidro eguneko bazkaria

San Isidro egunean, hilak 15, beste ekitaldien artean bazkaria egingo dute, 14:00etan, Plaza Etxeberri jatetxean, bertsolari eta trikitilariekin. Izena jate-txean bertan eman behar da eta horretarako azken eguna igandea da.

JOSE ANGEL CRISTOBALENA ▶ NATURISTA

«Sintomez gain, jatorria ere tratatu behar da»

Alergiei buruz aritu zen Jose Angel Cristobalena naturista atzo emandako hitzaldian



I. GARCIA

IMANOL GARCIA

Jose Angel Cristobalena (Tolosa, 1975) alergia inguruko hitzaldia eman zuen atzo Villabonako udaletxean, ikuspegi natural batetik.

Nola esplikatu dira alergia ikuspegi natural batetik?

Prozesu alergiko bat sortzen denean, jatorri bat dago, prozesu hori sortzen duena eta gero sintoma batzuk ditu, azalean edo mukosan agertzen direnak. Alergia motaren eta ezaugarrien arabera, sintomak tratatzeaz gain jatorria ere tratatu behar da. Hori guztia belarekin, homeopatiarekin, kinesiologia testekin, reflexoterapiarekin... tratatzen dugu.

Zein izan daitezke jatorriak?

Azkura eragiten duten eta ez dutenen artean bereizi ohi ditut alergia. Azkura eragiten dutenak gibelarekin eta besi-

kularekin dute lotura. Bi hauek behazuna botatzen dute eta behazuna narritagarria da. Azkura eragiten ez dutenak hesitekin dute zerikusia. Azken batean, alergia bat immunologia sistemaren neurrigaineko erantzun bat da.

Zergatik sortzen zaie neurri-gaineko erantzun hori pertsona jakin batzuei?

Alergia gehiago dagokio gaurtik herrialdeei garaturik gabe daudenei baino. Estresarekin bizitzeak zerikusia du, esaterako. Bestalde, txikitatik antibiotikoak eta medikamentuak ematen zaizkigu, gaizki jaten dugu... Horrek gure immunologia sisteman gero eta eskasia handiagoa sortzen digu. Gauza guztien batuketa da: alde fisikoa, emozionala eta adimenarena. Normalean pentsamenduarekin zerikusia du: gure burua eta besteak onartzen ditugun.

hitza

Harpidedunen
txokoa

Ostiralean, maiatzak 11, 21:00etan,

Rodrigo Leao eta Ludovico Einaudi bikoteak Leidor aretoan

eskainiko duen kontzerturako **2 harpidedunentzako** bina sarrera **zozketatu** ditugu!

Hauek dira irabazleak:

▶ Iker Telletxea (Tolosa)

▶ Marivi Zubelzu (Ibarra)



ALEGIA ▶ AISIA

IV. Garagardo Azoka bihar eta etzi izango da Elorri frontoian

Intxurre Kirol Elkarteak antolatutakoa da, eta aurten afaria ere prestatu dute, 9 garagardo mota irensteko laguntzaz



Garagardo Azokan afaria izango da: aurten 300 laguntzako lekua prestatuko dute. HITZA

Intxurre Kirol elkarteari laguntzeko

Intxurre futbol eta areto futbol taldeko jokalarientzat izango da IV. Garagardo Azokan aterako duten dirua. Lau talde zaharrenak igoera fasetan eta taulako lehen postuetan daude. Infantilak ere «ondo» dabilzala esan dute antolatzaileek. Izan ere, futbol 11ko mutilak finalerditan daude eta etzi Donostian joaneko partida jokatuko dute.

Futbol 8ko neskek final-laurdena jokatuko dute Alegian bihar 19:00etan, Touring taldearen aurka. Jubenilek azken partida dute Urnietaren kontra, eta ziurrekin 3. bukatuko dute taulan. Kadeteek azkenaurkekoa dute asteburuan. Senior mailako neskek etzi



Intxurreko neskek etzi jokatuko dute Tolosan. PATXI RENOBALDES

Tolosan jokatuko dute Orixe-ren aurka 20:00etan. Hauek ere hirugarren doaz taulan.

Beste urteetan bezala, IV. Garagardo Azokan ateratako

diruarekin Intxurre kirol elkarteari laguntzeko izango da: honela, orain arte bezala, Alegiak maila oneko taldeak izaten jarraituko du. ◀

NEREA URBIZU

Bihar eta etzi Alegian IV. Garagardo Azoka izango da. Elorri pilotalekuan egiten ohi dute, eta aurten ere bertan egingo dute jai erraldoia. Kalitate oneko garagardoez gain, afaria eta giroa ere izango dira. Herrian bertan, eta herritarrentzat jai aproposa dago, beraz, bihar eta etzi, 19:00etatik aurrera.

Aurten 9 garagardo ezberdin izango dira dastatzeko: Brugs, Beamish, Foster's, Newcastle Brown Ale, Grimbergen horia eta xigortu kolorekoa, eta San Miguel etxeko hiru garagardo. Beraz, belgiarrak, irlandarrak, ingelesak, eta espainiarrak. San Miguel marka «mundu guztian, eta batez ere Alegian, asko edaten den garagardo da», aipatu dute antolatzaileek.

9 garagardoetatik hiru, arruntak dira, eta prezioa ere desberdina du; sei bereziak dira, zapoerarengatik gehienbat. Txarroak, berriz, 1,50 euro balio du.

Afaria eta garagardoa

Afaltzeko menua honakoa izango da: 9 euro txerri ukondoak, saltxitxak 2 eurora eta Idiazabalgo gazta 2 eurora. Bizkotxoa ere izango da. 19:00etan irekitzen badute ere, afaltzeko ordurik ez da zehaztu: «Gosea duenak, nahi duenean eser dadila eta guk aterako diogu», antolatzaileen arabera. Dirudienez, 300 bat laguntzako lekua jarriko dute, eta «ez da izenik inon ere eman behar: bertara azaltzearekin nahikoa izango da». Musika egongo da gauean zehar ere, «gainera eguraldi ona iragarri dute, eta giro polita sor daiteke».

Garagardoak zerbitzen, eta sukaldean lanean Intxurreko jokalariek eta antolatzaileak ariko dira. «Guraso batzuk ere gerturatzen dira batzuetan: lanean laguntzen dituztenen esfortzua ere eskertzekoa da».

Etzi Elorriko ateak 19:00ak baino lehenago irekiko dituzte. Gonbitea denentzat zabaldu dute antolatzaileek.

BIDEGOIAN ▶

Agenda 21en ekintza plana aurkeztuko dute etzi

ERREDAKZIOA

Etzi, 16:00etan Bidegoiango udaletxean herri batzarra egingo dute; duela urte bat Agenda 21 prozesuaren baitan Udalak herritarren parte-hartzearekin sorturiko ekintza plana onartu zuen eta bertan jasotako ekintzen gaur egungo egoeraren berri emango dute.

Iaz zer egin den, zer ez den egin, zergatiak aztertu, eta abar izango dira gaien artean. Aldi berean, aukera izango da datorren urteari begira zein gaii heldu behar zaien eztabaidatzeko. Udalak herritar guztiei dei egiten die batzarrera ager daitezen.

ALEGIA ▶

Saharako haurrek uda herrian igarotzeko

ERREDAKZIOA

Aurten ere, Alegiko Udalak *Oporrak pakean* programan parte hartuko du. Helburua 7 eta 12 urte bitarteko haur sahararrek uda Euskal Herrian igarotzea da, kasu honetan, Alegian.

Aurreko urtetan bezala, Alegiko Udalak, ume baten gastuak bere gain hartuko ditu. Horretarako, haur batek uztaila eta abuztua hemen igarotzeko, familiaren bat prest dagoen jakiteko deialdi hau zabaldu du Udalak.

Interesa duenak, hilaren 18a baino lehen Alegiko Gizarte Zerbitzuetako bulegora deitu behar du.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

Tel.: 943 65 56 95

IBARRA ▶ ELKARTASUNA

Joxe Mari Garmendia agurtu dute

Ibarratik Ekuadorrera itzuliko da apaiz misiolaria «bere lanean jarraitzera»



Joxe Mari Garmendia Ekuadorrera joan aurretik agurtu zuten. HITZA

ASIER IMAZ

Azken asteburuan, bi ekintza egin zituzten Ibarratik Misisio Taldeak eraginda. Herriko bi misiolariari diru laguntza luzatzeko, larunbatean Belabietako kiroldegian Aerobic txapelketa burutu zen, bertan 500 euro bildu zituztelarik. Igandean berriz, Parroki Elkartearen «agur eta esker oneko Eukaristi zoragarria ospatu genuen eliza beterik zelarik». Bertan 1.269 euro bildu ziren.

Parte hartu zutenei eskerrak luzatu nahi izan dizkie antolatzailleek, «guztiei bihotzez eskerrik asko, eskuzabaltasun zoragarri honegatik. Berritara ere berri osoa emanaz jarraituko dugu eta elkartasun honetara irekiak jarraitzeko» animatzen dituzte partaideak.

Herriko bi misiolariak

Joxe Mari Garmendia eta Izaskun Azurmendi igandean bertsoak abestu zizkieten lehenaren gorazarre eta agur egunean. Jarraian datorren bertsoa apaiz ibartarrari konstatu zioten: *Gaur Joxe Mari he-*

men/zaitugu laguna, benetan kuttuna/Ekuadorrera joateko heldu da eguna/hartu gure esker ona, zeralako onduna/zuk lagunduz askotan, nik dut osasuna/Eman ta zabal zazu/gogoko duzuna.

Joxe Mari Garmendia apaiza Ekuadorrera itzultzean «Ibarratik bi misiolari izango ditugu». Bigarrena, bertan dagoen Izaskun Azurmendi gazte ingeniaria da. «Izaskun, Baba deritzen elkartearen aurkitzen da, bertako taldeen eragile bezala ari da gogotik lanean. Laster bere gurasoak, Joxe Antonio eta Benita ere, han izango dituzte laguntzaile eta animatzaile». Joxe Mari Garmendia berriz, Santa Rosa deritzen elkartearen dabil. Bere zerbitzuan daude ia ehun oinarritzko fede elkarte, auzoz-auzo bananduak. Zenbait proiektu eragiten ari dira: blokegintza, aroztegia, okindegia, jostundegia, nekazaritza, granja eta abar. Osasuna indartu du hemen eta hara itzuliko da. Lehen ere Ibarratik izan ditu gazte laguntzaileak; eta berritara ere denboraldi baterako beste batzuek animatuko zaizkio lan horretara.

IBARRA ▶ KIROLA



Emaitza «bikainak» Belabieta Gimnastikak

A. Imaz ▶ Gimnastika erritmikoan aurrez jokatu dituzten kanporaketak «bikain» gainditu ondoren, eskola honetako 3 gimnastak parte hartu zuten joan den larunbatean Bergaran jokatu zuten Eskolarteko Gipuzkoako Txapelketan. Kade-

teetan, Garazi Egiguren txapeldun izan zen. Infantiletan berriz, Miren Ezeiza 3. sailkatu zen eta Izaro Esnaola 5. postuan. Azken biak, Euskadiko Txapelketan parte hartu ahal izango dute. Eta Garazi Egigurenek berriz, Euskadiko Ligan. HITZA

IBARRA ▶ KULTURA



‘Sua’ filma grabatu zuten Izaskunen

A. Imaz ▶ Larunbatean Izaskunen elkartu ziren Eneko Aritzaren Lagunak Kultur Elkarteak, Sua pelikulako eszena bat grabatzeko asmotan. 30 bat lagunek, garaiko jantziak jantzi eta ermitaren atzealdea oihu eta garrasiz bete zuten. Soldaduek, atxilotuak postean lotu eta su-emailea gerturatu zen ondoren, erreketarako prest.

Hor amaitu zen grabatu beharrekoa. Arratsalde pasa gerturatu zirenek «gustura» amaitu zuten egin beharrekoa eta «esperientzia polita» bizi izan zutela aipatu zuten. Zeraindik ekarritako astoek ere parte hartu zuten grabaketan, soldaduen atzetik gurdia bultzatuaz eta barazkiz beterik plazatik buelta bat emanaz. IKER ARANALDE

LEITZA ▶ TEKNOLOGIA

Eskuak egonean berotzeko makina

Juanes Ceballosek pilotarientzat intentsitate ezberdineko kolpeak ematen dituen makina sortu du

NAIARA GARZIA

Pilotari onak eman ditu Leitzak urte askotan zehar, eta pilotariak ezezik, baita pilotaren inguruko asmatzaileak ere. Juanes Ceballosek asmakizun bat sortu berri du: pilotan jokatze-ko eskua berotzeko eta masaje emateko makina; pilotarien artean oraingoz kritika onak jaso ditu.

Asmakizun hau egiteko ideia bat-batekoa izan zela azaldu du Ceballosek. «Pilota partida bat ikusi nahi nuen telebistan, baina aldi berean lagun batekin gelditua nintzen norabaitera joateko. Pilotariak beroketa lanetan hasi ziren, baina partida ez zen hasten. Orduan nire buruari esan nion: zergatik ez ote dira etxetik eskuak berotuta etorriko?». Pentsamendu hau izan zen, beraz, asmakizun honen sorburua.

Orain ikus daitekeen makina, ordea, ez da hasiera batean Juanes Ceballosek egin zuena, aurrena beste saiakera bat egin baitzuen. «Lehenengo beste bat egin nuen, sinpleagoa, oinarritzkoa, baina ez zen ondo gelditzen, ez baitzuen ez intentsitatea ez abiadura graduatzeko aukerarik ematen». Oinarritzko makina eginda, beste bat egitea erabaki zuen, konplexuagoa. «Gero hau egitea erabaki nuen orduan, baina badu bere zailtasuna. Lehen-dabizi osagarriak bilatzen, motorrak biraketa-abiadura zehatz bat behar du, eta azkenean Madrilan topatu genuen. Denbora gehien atalak egiten

pasatzen duzu. Kanpoko kutxa enpresa bati egiteko eskatu nion, baina zatiak neronek eginak dira».

Makina piztu ondoren eskua azpian jarri eta pilotaren kolpekadak jasotzean datza funtzionamenduak. Intentsitate eta abiadura ezberdinak jar daitezke. «Abiadurarekin orduko ematen dituen kolpeak aldatu daitezke. Zuk zer behar duzun, horretara egokitu dezakezu. Berotzeko baldin bada intentsitate gutxiarekin eta erri-mo gehixeagorekin masaje bat bezala egiten diozu eskuari. Bestalde, intentsitate gehiago ematen badiozu, eskuo iltzea mantentzeko, hau da, eskuaren gogortasuna mantentzeko edo berotzeko balio du. Ordubete-an gehienera 7.000 kolpe eman ditzake».

Pilotarien iritzia

Pilotari eta zaleen artean ere kritika onak jaso ditu asmakizun honek. «Barriolak adibidez kolpea lehorregia iruditzen zitzaiola esan zidan, berak nahiago zuela zaitada modukoa. Hori egin daiteke, ez dago inolako arazorik. Patxi Ruizi ere erakutsi nion eta oso ona zela esan zidan. Orain bere entrenatzaileari erakustera joan beharra naiz Gasteizera». Gainera, egina duena eredu bat litzateke, baina gero beste behar batzuetara ere egokitu daiteke. «Nik hau neurri batekin egina daukat, abiadura eta intentsitate zehatz batekin. Gero behar izanez gero, pilotari bakoitz-



Juanes Ceballos bere asmakizuna ondoan duela. N.GARZIA

ren beharretara egokitu daiteke». Pilotarien iritziak jarraituz, beraz, bertsio ezberdinak egin daitezke, eta hauek pertsonalitateak izango lirateke

Juanes Ceballosek patentatu

du bere asmakizuna, beste inork asmakizun hau berea egin ez dezan. «Niri saldu daitekeela iruditzen zait. Pilota munduan mugitzen diren hainbat pertsonekin hitz egin dut

eta ideia ona dela deritzote, gehienbat pilotaria lesionatuta dagoenean, iltzea mantentzeko. Honetaz gain, eskuak berotu eta masajeatzeko ere egokia da».

LEITZA ▶ PILOTA

Asteburuan jokaturiko 6 partidetatik 5 irabazi dituzte Aurrerako pilotariak

Ostiralean Herrien Arteko Txapelketa hasiko da Leitzaan, 20:00etan

N. GARZIA

Asteburu honetan Aurrera Pilota Eskolako mutilek 7 norgehiagoketatik bakarra galdu dute. Osotara 6 izan dira irabazi dituzten partidak eta bat bertan behera utzi zuten.

Larunbatean Lizarran jokatu zituzten asteburu honetako lehenengo hiru partidetatik bakarra galdu zuten herriko pilotariak. Oinatz Mariezkurrenak eta Josu Zabaletak 18-6 irabazi zuten eta Xabier Jaunarenak eta Andoni Arozenak 18-12. Jo-

xerra Aldaregiak eta Mikel Onsalok, berriz, 6 tantorengatik galdu zuten.

Igandean, berriz, Lizarran Mikel Hernandezorenak eta Irurtzungo Carrascok jokatu beharreko partida bertan behera utzi zuten.

Asteburu honetan, ordea, Lizarraz gain, Abadiño eta Urretxun ere ibili dira herriko pilotariak. Alde batetik, Aritz Sagastibeltzak Urretxun jokatu zuen eta bestetik, Mikel Iriartek Abadiñon. Bai bata, bai besteak ere garaipena lortu zuten.

Irurtzungo Txapelketari dagokionez, Anartz Olanek eta Mikel Sagastibeltza Eguesek finalerako sailkatu dira.

Bestalde, bihar Herrien Arteko Txapelketa hasiko da 20:00etan eta hiru norgehiagokak jokatu dituzte Amazabal Pilotalekuan.



Aurrerako pilotariak. n. g.

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2007ko maiatzaren 10a, osteguna ▶ V. urtea

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Berrobi. Kultur Astea: 17:00etan Urreburuko gazteboen pilota partidak eta 18:30ean Felix Belaunzarán sukaldariaren sukaldaritza erakusketa eta Ona elkartearen. Haurtzaindegi zerbitzua eskainiko da Etxolan.
Tolosa. Batxilergoko 2. mailako gurasoei zuzenduriko bilera egingo dute Orixe institutuan 19:00etan: Landutako gaiak eta egindako bisitei buruzko informazioa; ikasketak eta lan-irteerari buruzko informazioa.
Tolosa. *Inork ez du gutaz hitz egingo kirola egindakoan* hitzaldia udal batzar aretoan: 19:00etan ikerketa baten aurkezpena eta 20:00etan arrauna, pilota eta areto futboleko esperientziak batzuen azalpena.
Tolosa. Hilaren 20an egingo de Haurren Arrantza Txapelketarako izen-ematea Tolosako Arrantzaleen egoitzan (Usabal kiroldegia) egingo da 19:00etatik 20:00etara.
Tolosa. Cd eta binilo azoka berezia 18:00etatik 21:00etara Bonberenean.

ZINEMA

Tolosa. Hue Hsao Hsien zuzendariaren Tiempos de amor, juventud y libertad filma emango dute Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean Tolosako zine-forumean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Irritzun. Gastearena, M. Amaia kalea, 4. 112.
Ibarra. Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 673274.

IRRATIA

Txolarre irrati (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotza* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, TOLOSALDEKO ETA LEIZALDEKO HITZAREN errepassoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
 18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotza* (errepikapena).
 20:00-21:00. *Irauli uhinak*.
 21:00-23:00. *Bide okerretik*.

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta irizien erantzukizunik.



Disko zaharrak ere eskuragai daude azokan. i.t.



Etzi izango da diskoen azoka bisitatzeko azken eguna. i.t.

Doinu zaharrak eskuragarri

TOLOSA ▶ 10. urteurrenaren harira Bonbereneak ekitaldi ugari antolatu ditu; horien artean etzi arte ikusgai izango den CD eta binilo azoka berezia



Disko zaharrak nahiz berriak ikusi eta erosteko aukera aproposa dago Bonberenean. i.t.

ERREDAKZIOA

Hamarkada igaro da jadanik Bonberenea mar txan jarri zutela. Lan handiaren ondorio sortu zen proiektua eta urtez urte sendotuz joan da. Hala, herriaren kultur gune garrantzitsu bilakatu da eta musika talde handi ugari igaro dira bertako eszenatokitik

10. urteurrena dela-eta ekitaldiz beteriko maiatza antolatu dute arduradunek. Horien artean, etzi arte ikusgai jarri dute Bonberenean bertan Cd eta binilo azoka. Merkatu txiki honetan, azken 25 urteotan euskal musikak eman dituen rock talde ezberdinen diskak daude eskuragarri. Halaber, Gor, Metak, Esan Ozenki, Oihuka, Elkar, Musikaerria, Arto artian, Mala Raza eta Bullanga Recors bezalako Euskal Herriko disketeen katalogoa jarri dute. Bertara joateko orduetgia 18:00etatik 21:00etara bitartekoa da. Etzi, gainera, egun osoz irekiko dute herritarrek bertara joateko aukera izan dezaten.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Julen Jauregi Salaberria (Belauntza). Gaur 8 urte. Muxu handi bat amonaren partetik.



URTE ASKOAN
Iker. Muxu handi bat familiaren partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza Leiztan Udaletzeko bulegoa

hitza
 agurren tartea

Urtebetetzak, urrezko etzeiak, ezkontzak, jaioberriak...